



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2010-01-18ko EZOHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta hamargarren urteko urtarrilaren hamazortzian, arratsaldeko 17:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA

AURREKO BILERATAKO AKTAK ONARTZEA.

2009/06/26; 2009/07/29; 2009/09/14; 2009/09/21; 2009/10/02 eta 2009/10/16 saioetako akten zirriborroak ikusita, aho batez erabaki du udalbatzak hurrengorako uztea onarpena, guztiak behar bezala aztertzeke denbora gehiagoren beharra irudiz.

BIGARRENGO GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2009-11-30eko 51/2009 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 20.773,07.-€
- 2009-12-02ko 52/2009 Dekretua: 35.776.463-D udal langileari baimena ematea eguna jai hartu eta medikura joateko.
- 2009-12-02ko 53/2009 Dekretua: 35.776.463-D udal langileari baimena ematea hauta-probak egiteko behar dituen orduak jai hartzeko.
- 2009-12-14ko 54/2009 Dekretua: Alkateak kanpora joan behar duela eta, alkateordearen aldeko eskuordetza egitea
- 2009-12-30eko 55/2009 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 8.565,17.- €.
- 2009-12-30eko 56/2009 Dekretua: 9453 BNC ibilgailula Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbustea.
- 2009-12-30eko 57/2009 Dekretua: 15.142.263-Yri baimena ematea lehioak aldatzeko.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 2009-12-30eko 58/2009 Dekretua: 44.154.490-Xi San Pedro jaietako zozketan egokitutako 100.-€ak ordaintzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARRENGO GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, BEIZAMAKO "OSTATU ZAHARRA"
TABERNAREN USTIAPEN ESKUBIDEA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA ETA
LEHIAKETARI HASIERA EMATEA.

Udalak interesa du Beizamako Ostatu Zaharra tabernaren ustiapen eskubidea esleitzeko, honek herrian betetzen duen xedea funtsezkoa deritzolarik. Beizamako ostatu-zaharrak, ostalaritza ekipamendua izateaz gain, zerbitzu publiko izaera du eta zentzu honetan, ostatuak, alde batetik, nagusiki herritarren zerbitzuarekin lotura du, eta bestetik, Udalak sustaturiko jardueren azpiegitura lagungarria izango da, Udalak hala erabakiz gero.

Ikusirik udal idazkariaren txostena eta urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, besteen artean 93, 94, 96, 97, 154, 159 eta 161 eta ondorengo artikuluetan arautzen duena.

Kontuan hartuz, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.1.f) eta ñ) ataletan xedatutakoa, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako Ostatu Zaharra ustiatzeko eskubidearen emakida Administrazio kontratu bereziaren bidez egiteko espedienteari hasiera ematea.

Bigarrena.- Beizamako Ostatu Zaharra ustiatzeko eskubidearen emakida Administrazio kontratu bereziaren bidez egiteko Baldintza Administratibo, Ekonomiko eta Juridikoen Orriak onartzea.

Hirugarrena.- Kontratazio-jardunbideari hasiera eman eta erabakiaren berri luzatzea, jadanik interesa agertu dutenei jakinarazi eta eskualdeko Hitza egunkarian iragarri.

Laugarrena.- Interesdunek beren proposamenak aurkez ditzaten 10 egun naturalekoa epea ezartzea, jakinerazpenak egin eta biharamunetik kontaktzen hasita.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

LAUGARRENGO GAIA
TOKIKO INBERTSIOTARAKO, ENPLEGU ETA IRAUNKORTASUNERAKO
ERATUTAKO ESTATUKO FONDOAREN DIRULAGUNTZA PROGRAMAN
ESKAERA EGIN ETA DAGOKION PROIEKTUA AURKEZTEA ONARTZEA

Urriaren 23ko 13/2009 Errege Dekretuak, tokiko erakundeek inbertsioak egin ahal izateko fondo berezi bat eratu zuen. Fondo honen bidez lortu nahi da ekonomiaren eta enpleguaren dinamizazio bat lortzea. Guztia honen inguruan, Beizamako udalerriari 19.460,00.-€ko (BEZ barne) dirulaguntza esleitu zitzaion.

Aurrekoaren aurrean, eta udalerriak dituen beharrak kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehenik.- Urriaren 23ko 13/2009 Errege Dekretuak sortutako dirulaguntzen deialdian parte hartzea.

Bigarrenik.- Deialdira, Beizamako Udaletxea eta Natur Eskola pellet bidezko ur bero eta sanitario sarera lotzeko proiektua aurkeztea onartzea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

BOSGARRENGO GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, R-21 GUNeko AIREKO ELEKTRAINDAR LINEA
LURPERATZEKO IBERDROLAK AURKEZTUTAKO PROIEKTUA ONARTZEA.

Ikusirik, Beizamako Udaleko ohiko osoko bilkurak, 2009ko otsailaren 25ean egindako batzarrean, onartu zuen besteen artean, gai honi buruz aurretik hartutako erabakia berrestea eta R-21 guneko proiektuaren aldaketa egitea onartzea elektrindar postea lurperatzeko.

Ikusirik 2009ko abenduaren 30ean Iberdrolak, Beizamako Udalak egindako eskaerari jarraituz, aipatutako elektrindar postea lurperatzeko proiektua aurkeztu duela, instalazioaren aldaketarako baldintza tekniko-ekonomikoekin batera.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, udala aholkatzen duen arkitektoak egindako txostenean, lan honek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda azaltzen dela.

Kontuan hartuz, besteen artea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.1 artikuluko ñ idatz-lerroan ezarritakoa, Udalbatzak, gaia aztertu ondoren eta bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Lehena.- Iberdrolak aurkeztutako proiektua onartzea.

Bigarrena.- Eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea, hauen balorazioarekin batera.

Hirugarrena.- Beste modu egokiagorik ez den artean, aipatutako zerrenda, 1954ko abenduaren 16ko Legeak, Nahitaezko Desjabetzea arautzen duenak araututako efektuetarako onartzea eta agintzen duen iragarkia publikatzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Laugarrena.- Iberdrolari erabakiaren berri jakinaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

SEIGARRENGO GAIA
ELURRA KENTZEKO PALAREN ERABILERA ARAUTUKO DUEN
HITZARMENA ONARTZEA.

Ikusirik, Beizamako Ointzabal baserriko biztanleek elurrarekin hainbat arazo izaten dutela, batetik, Foru Aldundiaren elurra kentzeko makinak bertara joaten ez direlako; eta, bestetik, Beizamako herrigunetik urruti dagoelako.

Ikusirik, Beizamako Udalak baduela elurra kentzeko pala bat beraiei lagatzeko moduan.

Ikusirik, Ointzabal baserriko biztanleek badaukatela aipatutako pala hori era egokian erabiltzeko traktorea.

Kontuan hartuz, besteen artean, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.2 artikuluan, Udalbatzak gaia aztertu ondoren eta bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

du:

Lehena.- Ointzabal baserriko biztanleekin hitzarmena egitea elurra kentzeko pala lagatzeko.

Bigarrena.- Lagapenaren ordeztu, Ointzabal baserriko biztanleak arduratuko dira bertarako bidea garbitzen elurra egiten duenean.

Hirugarrena.- Beizamako Udaleko alkatea eskuordetzea dagokion hitzarmena sinatzeko.

ZAZPIGARRENGO GAIA
UDALAK SAIASZ MANKOMUNITATEAN DITUEN ORDEZKARIEN
ALDAKETA EGITEA.

Ikusirik, udal honek, 2007ko ekainaren 25eko ezohiko Osoko Bilkuran erabaki zuela, besteen artean, Beizamako Udalak parte hartzen duen hainbat organo kolegiatu eta mankomunitateetan ordezkariak izango direnak izendatzea, hauen artean, Saiasz Gizarte Zerbitzu Mankomunitatean izango direnak: Igone Arruti Olazabal titularra eta Begoña Garmendia Vazquez ordezkaria.

Ikusirik, hainbat arrazoi direla medio, egokia ikusten dela izendatu ziren ordezkarien aldaketa egitea.

Udalbatzak, gaia aztertu ondoren eta bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Lehena.- Begoña Garmendia Vazquezen ordeztu, Itziar Arkonada Lizarraga izendatzea Beizamako Udalak Saiasz Gizarte Zerbitzu Mankomunitatean duen ordezkariaren ordeztu izateko.

Bigarrena.- Saiasz Gizarte Zerbitzu Mankomunitateari honako erabaki hau jakinaraztea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

ZORTZIGARRENGO GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, KULTUR EKINTZETARAKO DIRULAGUNTZAK
EMATEA

Ikusirik, Beizamako Udalak udalerriko kultura eta bizikidetzaren dinamizatzeko nahia eta interesa dituela.

Ikusirik, hainbat herritarren eskaerarekin bat egiten duela eta aurtengo ikasturorako hainbat kultur ekintza antolatu nahi dituela.



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, ikastaroetan parte hartzen dutenei diru-laguntza bat ematea egokia ikusten duela Beizama ko Udalak, interes orokorreko ekintza hauen iraupena bermatzeko asmoz.

Udalbatzak, gaia aztertu ondoren eta bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Lehena.- Soinu eta pandero ikastaroak diruz laguntzea ondoren adierazten den eran: Hau bakoitzarengatik 43.-€ ordainduko zaizkio irakasleari. Hauetako 30.-€ gurasoek ordaindu beharko dituzte eta udalak 13.-€ko laguntza jarriko du. Udalak ordainketa ikasturtearen amaieran egingo du, ikasturte osoan jarraitu dela eta bertaratzea egiaztatuz gero.

Bigarrena.- Antolatuko den ludoteka zerbitzuarengatik, bertaratzen diren haurren gurasoek 5.-€ ordaindu beharko dituzte haur bakoitzeko hilero.

Hirugarrena.- Pilota ikastaroa. Bertaratzen diren haurren gurasoek 5.-€ ordaindu beharko dituzte haur bakoitzeko hilero.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 19:30etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.